

**MERKATARITZA, KONTSUMO  
ETA TURISMO SAILA**

LEHIAKETA PUBLIKOA. Bekario atzerritarrak hautatzeko lanak burutzeko den kontratua esleitzeko iragarpena. (Esp.: C.C.T. 13/13/98 ZK.). 6914

LEHIAKETA PUBLIKOA. EAEko banaketa komertziala sektoreari buruzko 1997. urteko txostena prestatzea helburutzat duen kontratua esleitzeko iragarpena. (Esp.: C.C.T. 12/14/98 ZK.). 6816

**Beste Iragarpen Ofizial Batzuk****ARABAKO FORU ALDUNDIA**

IRAGARPENA, 1998ko martxoaren 26ko 237 Foru Aginduari buruzkoa, hau da, Legutianoko Udalerriaren Planeameduko Arau Subsidiarioen aldakuntza puntualaren espedienteari buruzkoa, eta zehazki, Elosuko 40 zenbakidun eraikina deskatalogotzearen gainekoa. 6918

IRAGARPENA, 1998ko martxoaren 27ko 243 Foru Aginduari buruzkoa, eta zehazki, Lagrán Udalerriaren Ordezko Arau Subsidiarioetako Golf Zelaiaren Plan Bereziaren espedienteari buruzkoa. 6919

IRAGARPENA, 1998ko martxoaren 31ko 30 Foru Aginduarena, hau da, Vitoria-Gasteizen Hiri-Ordenazioko Plan Orokorren Aldakuntzari dagokion espedienteari buruzkoa. Aldakuntza hori 5.01.31.3 atalari buruzkoa da, hau da, argi-patioen baldintzen gainekoa. 6920

**Xedapen Orokorrak****KULTURA SAILA****Zk-1667**

71/1998 DEKRETUA, apirilaren 7koa, Gizarte eta Kultura Suspertzaileen Eskolak onartzen dituen Dekretua aldatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.39 atalak eskumen eskusiboak onartzen dizkio

**DEPARTAMENTO DE COMERCIO,  
CONSUMO Y TURISMO**

CONCURSO PUBLICO. Anuncio para la adjudicación del contrato que tiene por objeto la realización de trabajos necesarios para la selección de becarios extranjeros. (Expte. C.C.T. n.º 13/13/98). 6914

CONCURSO PUBLICO. Anuncio para la adjudicación del contrato que tiene por objeto la elaboración del informe anual-1997, sobre el sector de la distribución comercial en la CAPV (Expte. C.C.T. n.º 12/14/98). 6816

**Otros Anuncios Oficiales****DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA**

ANUNCIO de la Orden Foral núm. 237, de 26 de marzo de 1998, en relación con el expediente de Modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Legutiano, referente a la descatalogación del edificio n.º 40 de Elosu. 6918

ANUNCIO de la Orden Foral núm. 243, de 27 de marzo de 1998, en relación con el expediente de Plan Especial de Campo de Golf de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Lagrán. 6919

ANUNCIO del Decreto Foral núm. 30 de 31 de marzo de 1998, en relación con el expediente de Modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Vitoria-Gasteiz, consistente en la modificación del artículo 5.01.31.3, relativo a las condiciones de los patios de luces. 6920

**Disposiciones Generales****DEPARTAMENTO DE CULTURA****Nº-1667**

DECRETO 71/1998, de 7 de abril, de modificación del Decreto por el que se regula el reconocimiento de Escuelas de Animación Sociocultural.

El artículo 10.39 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco reconoce competencia exclusiva a la Co-

gure autonomia erkidegoari garapen komunitarioaren arloan, besteak beste, eta urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretuak Kultura Sailari ematen dio arlo horretaz arduratzeko zeregina.

Bestalde, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7. ataleko c) idazatik 2. zenbakiak autonomi elkarte osorako erakundeek alor horri buruz duten legedia beren lurraldeetan betearazteko eskumena ematen die lurralde historikoei.

Suspertzaile soziokulturalek gizarte eta kultura arloko animazio lanetan jardun ahal izateko prestakuntza berezia eta egokia izatea oso garrantzitsua zenez, martxoaren 1ean 47/1988 Dekretua onartu zen eta, horren bidez, gizarte eta kulturarako suspertze- eskolen onarpena arautu.

Gizarte-heziketaren eta animazio soziokulturalaren inguruan eskaintza berriak agertu dira unibertsitatearen eta lanbide heziketaren eskutik eta, horien bidez bete da, neurri batean behintzat, onartutako gizarte eta kultura suspertzaileen eskolek orain arte egindako lana. Hala ere, badago oraindik ere animazio soziokulturaleko eskolen bidez bideratu behar-rekoto hainbat eskaera mota.

Horren harian, martxoaren 1eko 47/1988 Dekretu horretan ez bezala, dekretu honetan aipatzen diren suspertzaile soziokulturaleko eskolak bolondres entitateen agente eta bitartekarien heziketa eskaerei bideratuko zaizkie batik bat. Izan ere, bolondres mugimenduaren dinamizatzaile soziokulturalek, bereziki harremanezkoak diren partehartze estrategien bidez, komunitatearen gizarte-, kultura- eta heziketa-garapenaren aldeko eskuhartze prozesuak bideratzen dituzte.

Beste alde batetik, aisialdi arloari bakar-bakarrik loturik ez dauden entitateek eta haur eta gazteen sektoreez gain bestelako biztanle-taldeak ere kontuan hartzen dituzten entitateek arian-arian garapen komunitarioaren arloan ekimenak martxan jartzeak zera eskatzen du: eskuhartze komunitarioko ekintzetan parte hartzen duten bolondres entitateek prestakuntza aldetik dituzten beharrei erantzutea.

Ondorioz, animazio soziokulturaleko eskolen zereginean gutxieneko kalitate maila bermatzeko, elkartze mugimenduak eta komunitateak edozein biztanle-talde edo eskuhartze arloren garapenaren alde egiten duten lanerako zerbitzu eta euskarri diren aldetik, beharrezkoa da gizarte eta kultura suspertzaileen eskolak onartzeko ezarrita dauden baldintza zenbait aldatzea eta, horrela, aisialdiko pedagogian esperientzia egiaztatu behar izateko eskakizuna eta haur eta gazteen aisialdiko zuzendari titulua izan behar-rekoa kentzea.

Ondorioz, bada, Kultura sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1998ko apiri-

munidad Autónoma en materia, entre otras, de Desarrollo Comunitario, el ejercicio de la cual ha sido atribuida al Departamento de Cultura por el Decreto 1/1995, de 3 de enero.

Por su parte, el artículo 7 apartado c), número 2 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, reconoce a los Territorios Históricos la competencia de ejecución dentro de su Territorio de la legislación de las Instituciones Comunes en aquella materia.

Dada la importancia que, para la intervención sociocultural, tenía el disponer de una formación específica idónea por parte de los y las animadores/as socioculturales, se dictó el Decreto 47/1988, de 1 de marzo, por el que se reguló el reconocimiento de escuelas de animación sociocultural.

La aparición de nuevas ofertas formativas en el campo de la educación social y en el de la animación sociocultural a nivel universitario y desde la formación profesional viene a cubrir, en buena parte, la actividad desarrollada hasta el momento por las escuelas de animación sociocultural reconocidas. Sin embargo, queda una determinada demanda que debe seguir siendo atendida desde tales escuelas de animación sociocultural.

En ese sentido, a diferencia del enfoque directriz del citado Decreto 47/1988, de 1 de marzo, las escuelas de animación sociocultural a las que se refiere el presente Decreto orientarán prioritariamente su actividad hacia las demandas formativas de los agentes y mediadores de las entidades de voluntariado, quienes, desde estrategias de intervención preferentemente relacionales, propician procesos de participación en favor del desarrollo social, cultural y educativo de la comunidad, como es el caso de los y las dinamizadores/as socioculturales del voluntariado.

Por otro lado, el progresivo desarrollo de diversas iniciativas en el ámbito del desarrollo comunitario por parte de entidades no ligadas exclusivamente al campo del tiempo libre o que atienden a diversos sectores de población, además del infantil y juvenil, requiere posibilitar que sean atendidas las necesidades formativas de las diversas entidades del voluntariado que actúan en cada uno de los ámbitos de la intervención comunitaria.

En consecuencia, para garantizar un mínimo de calidad en la tarea de las escuelas de animación sociocultural, como servicio y apoyo a la labor de movimiento asociativo y de la comunidad en favor del desarrollo de cualquier sector de población y ámbito de intervención, se hace necesario modificar parcialmente las condiciones en que son reconocidas las escuelas de animación sociocultural, suprimiéndose las limitaciones referentes a acreditar una experiencia desde la pedagogía del tiempo libre, así como a poseer el título de director/a de tiempo libre infantil y juvenil.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de

laren 7an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

**Lehen atala.**– Gizarte eta kultura suspertzaileen eskolak onartzen dituen martxoaren 1eko 47/1988 Dekretuaren ondoko atal hauek aldatzea: 2, 3.1 a) eta b), 6.1 eta 7.2. Eta honela berridaztea:

«Bigarren artikulua. – Aurreko atalean adierazitako onarpena edozein pertsona fisikok edo juridikok eskatu ahal izango du, pribatua nahiz publikoa dela.

Hirugarren artikulua. – 1. – Gizarte eta kultura suspertzaileen eskola gisa onartzea nahi duten pertsona fisiko eta entitateek horretarako eskaera egin beharko diote kokatuak dauden lurralde historikoko foru aldundiko dagokion departamentuari edo Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzari. Eskabidearekin batean honako agiri hauek ere bidali beharko dituzte:

a) Eskaera egiten duen entitatearen nortasuna egiaztatzeko agiriak eta ikastetxea arautuko duten estatutuak. Eskaera egiten duena pertsona fisikoa izatea gertatuz gero, eskabidea izenpetzen duenaren NANaren fotokopia bidali beharko da, bai eta bere ordezkotza egiaztatzeko agiria ere.

b) Eskolako zuzendariak unibertsitatean egindako erdi edo goi mailako ikasketen agiriaren kopia, eta gizarte eta kultura suspertzaile nahiz dinamizatzaile titulua edo diploma.

Seigarren artikulua. – 1. – Onartutako eskola guztiek zuzendari bat izango dute eta hark honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Entitatearen arduradun nagusia izango da, eta eskolaren ordezkaria edozein erakundearen aurrean.

b) Nahitaez unibertsitateko tituluduna beharko du izan, erdi edo goi mailakoa, eta gizarte eta kultura suspertzaile nahiz dinamizatzaile ere bai.

Zazpigarren artikulua. – 2. – Eskola bakoitzak betebeharrak osagarri gehiago jarri ahal izango dituen arren, gizarte eta kulturako suspertzaile ikastaroan matriculatu ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da:

a) Gutxienez 21 urte izatea edo ikasturtean zehar betetzea eta, beti ere, praktikak egin aurretik.

b) Goimailako Batxilergoko edo bigarren mailako Lanbide Heziketako titulua izatea, edo horren baliokidea, edo DBHko ikasketak

Gobierno en su sesión celebrada el día 7 de abril de 1998,

DISPONGO:

**Artículo primero.** – Se da nueva redacción a los artículos 2, 3.1 a) y b), 6.1 y 7.2 del Decreto 47/1988, de 1 de marzo, por el que se regula el reconocimiento de Escuelas de Animación Sociocultural, quedando del siguiente literal:

«Artículo segundo. – El reconocimiento a que se refiere el artículo anterior podrá ser solicitado por cualquier persona física o jurídica, privada o pública.

Artículo tercero. – 1. – Las personas físicas o entidades interesadas en ser reconocidas como Escuela de Animación Sociocultural deberán presentar una solicitud ante el Departamento competente de la Diputación Foral correspondiente al Territorio Histórico en el que tengan fijada su residencia o ante la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, acompañada de los siguientes documentos:

a) Los que acrediten la personalidad de la entidad solicitante, así como los estatutos por los que se regirá el Centro. En el caso de que la persona solicitante sea una persona física, copia del D.N.I. de quien suscriba la solicitud, así como acreditación de la representatividad que ostenta.

b) Copia de la titulación universitaria, media o superior, del/la director/a de la escuela, así como el título o diploma de animador/a o dinamizador/a sociocultural.

Artículo sexto. – 1. – Toda escuela reconocida contará con un/una director/a, quien:

a) Ostentará la máxima responsabilidad de la entidad y su representación oficial ante todo tipo de organismos.

b) Deberá poseer, necesariamente, titulación universitaria, media o superior, así como la correspondiente en animación o dinamización sociocultural.

Artículo séptimo. – 2. – En cualquier caso, y sin perjuicio de que cada escuela pueda establecer más requisitos complementarios, para matricularse en el curso de animación sociocultural será condición mínima imprescindible:

a) Tener como mínimo 21 años o cumplirlos en el desarrollo del curso y, en todo caso, con anterioridad a la realización de las prácticas.

b) Estar en posesión del título de Bachillerato Superior o Formación Profesional de segundo grado o equivalente o tener completada

bukatuak izatea. 25 urtetik gorakoek ez dituzte betekizun horiek bete behar.

c) Bolondres entitate bateko partaide aktibo izatea.»

**Bigarren atala.**– Gizarte eta kultura suspertzailen eskolen onarpena arautzen duen martxoaren 1eko 47/1988 Dekretuaren 6.3. atala ezabatzea.

#### ALDI BATERAKO XEDAPENA

**Bakarra.**– Martxoaren 1eko 47/1988 Dekretuan ezarritakoaren arabera onartutako animazio soziokulturaleko eskolen artetik beren lanarekin jarraitu nahi dutenek, dekretu honetan ezarritakoa betetzen badute, gizarte eta kultura suspertzailen eskola gisa lan egiten jarraitzeko asmoa dutela jakinarazi beharko diote, idatziz, kokatuak dauden lurralde historikoko foru aldundiaren dagokion departamentuari nahiz Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzari. Horretarako sei hilabeteko epea izango dute, dekretu hau indarrean jarri denetik aurrera, eta bertan ezarritakoa betetzen dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte. Jakinarazpen hori behar bezala aurkeztuz gero, eutsi egingo diote, bestelako tramiterik egin behar izan gabe, gizarte eta kultura suspertzailen eskola izateari. Aldiz, horrelako jakinarazpenik bidaltzen ez badute, zeukaten onarpena baliogabetu egingo zaie.

#### GEHIGARRIZKO XEDAPENA

**Bakarra.**– 47/1988 Dekretuan Kultura eta Turismo Saila, Kultura eta Turismo sailburua eta lurralde ordezkariak aipatzen den aldiro, beste hauek aipatzen ari dela ulertu beharko da: Kultura Saila, Kultura sailburua eta lurralde unitateak, hurrenez hurren.

#### AZKEN XEDAPENA

**Bakarra.**– Dekretua hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1998ko apirilaren 7an.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Kultura sailburua,  
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

la E.S.O. De estos requisitos quedan exentas las personas mayores de 25 años.

c) Pertener activamente a una entidad de voluntariado.»

**Artículo segundo.**– Se suprime el contenido del artículo 6.3 del Decreto 47/1988, de 1 de marzo, por el que se regula el reconocimiento de Escuelas de Animación Sociocultural.

#### DISPOSICIÓN TRANSITORIA

**Única.**– Aquellas escuelas de animación sociocultural que, habiendo sido reconocidas a tenor de lo dispuesto en el Decreto 47/1988, de 1 de marzo, deesen continuar su actividad y se ajusten a lo dispuesto en el presente Decreto deberán comunicar por escrito, en el plazo de seis meses desde la entrada en vigor del presente Decreto, ante el Departamento competente de la Diputación Foral correspondiente al Territorio Histórico en que tengan fijada su residencia o ante la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, su continuidad como escuela de animación sociocultural, adjuntando justificación acreditativa del cumplimiento de lo dispuesto en el presente Decreto. Una vez presentada debidamente dicha comunicación, seguirán manteniendo sin más trámite el reconocimiento de escuela de animación sociocultural otorgado en su día. En caso contrario, sería revocado el correspondiente reconocimiento.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

**Única.**– Las referencias contenidas en el Decreto 47/1988 al Departamento de Cultura y Turismo, así como al Consejero de Cultura y Turismo y a las Delegaciones Territoriales se entenderán realizadas al Departamento de Cultura, Consejero/a de Cultura y Unidades Territoriales respectivamente.

#### DISPOSICIÓN FINAL

**Única.**– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de abril de 1998.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

La Consejera de Cultura,  
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.